# 1762.

# JESUSEN BIOTZ MAITAGARRIARI.

Gure gusto, gure atsegin
Gure Jesús maitea:
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

1

Gure obenak, gure loiac
Lenik kendu bear dira;
Ura zara, ken itzatzu,
Galdu gara bestela.
Badakigu zaudela
Gure amorez betea,
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

2

Etzeuden bacarrik loiac
Gure biotz gaistoan;
Busti, ta ur egiña dago
Becatuen eutzuan.
Garbia da, idor dago,
Jesús ona! zurea.
*Zere Biotzeco, suan*
*Erre zazu guréa.*

3

Argiz dago beterik
Jesús zure biotza:
Illunbean gurea
Elurra bezain oka;
Emen gatoz, ager zazu
Zuganako bidea.
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

4

Noizbait noizbait arkitu du
Bular ori idikia!
Sartuko naz, ar nazazu
Biotz-ean guzia.
Egon bear ez ote dut
*Nic or beti gordea?*
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

5

Zure suak, zure garrak
Atsegiñen naute ni?
Geroztik egoin ninzake
Amorez urtzen beti.
Jesús, zu zaran ezkero
Gure animen labea
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

6

Au zer dá? zer pena dira
Dituzunac barrendik?
Zure Biotza utzi dute
Dena nekez beterik!
Zein andia, zein latza.
Daramazun nekea!
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

7

Zure Biotza arkitzen da
Lantzaz erdiratua:
Nere culpen burdiña da
Lantz erdiratzallea.
Damuz autsi baledi
Nere barren tristea!
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

8

Arantza zorratza baizic
Ez dezu nere ezcutik:
Nere culpen arantzekin
Dena zaude odolturik.
Ah! ni baldin banengo
Negar damuz asea!
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

9

Gure culpak egin dute,
Gurutze sendo ori;
Ezartzen diote culpak
Zure Biotz onari.
Culpa gaisto, ta oben gogor,
Oben culpa nerea!
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

10

Zer nai dezu? zertan zaude,
Jesús ona Aldarean!
Charkeriak artzen dago
Amorézco lecuan!
Charkerien pena naidu,
Nai du gure amorea,
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

11

Ez dut bear maitatu,
Jesús, zure Biotza!
Artu bear ez dut nik
Zure neken damua!
Eske nator, zabal zazu
Sar bideko atea.
*Zere Biotzeco suan*
*Erre zazu guréa.*

SEBASTIAN MENDIBURU.

## CENTENARIO DEL P. MENDIBURU.

El Ayuntamiento de Oyarzun y la Comision especial nombrada para organizar las fiestas con que aquel Valle trata de celebrar el primer centenario del distinguido bascófilo, eminente orador é ilustre apóstol de la devocion al SS. Corazon de Jesús en la Euskal-Erria, P. Sebastian de Mendiburu, acordaron en sesion del domingo 18 del